

ZILARREZKO EKONOMIARAKO BIZKAIA PROGRAMAREN OINARRIAK 2022- 2023KO IKASTURTERAKO

XEDAPEN OROKORRAK

Bizkaia Talent irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta ondo baino hobeto prestatutako pertsonak bertan geratzeko, erakartzeko eta inplikatze baldintzak eta prozesuak bultzatzea eta suspertzea dauka helburu eta, horretarako, Bizkaiko erakundeen berrikuntzaren eta jakintza aurreratuaren arloak sustatzen ditu.

Honako hauexek dira Bizkaia Talent eratzen duten bazkideak: Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK), BEAZ, CIC bioGUNE, Tecnalía, Iberdrola, Idom, ITP Aero, Mondragon, Sener, Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Bizkaiko Foru Aldundia. Gainera, azken instituzio horretako Ekonomia Sustatzeko Saila da elkarteburua.

Esparru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak Zilarrezko Ekonomiarako 2022-2023ko Bizkaia Programaren bigarren deialdia aurkezten du, Bizkaia Talentek kudeatuko duena, eta ondo baino hobeto prestatutako pertsonak ditu xede, unibertsitateek Bizkaian zilarrezko ekonomiaren sektorean emandako prestakuntza espezializatua egin dezaten eta, horrela, euren gaikuntza hobetu dezaten eta egoera global berrira hobeto egokitu daitezen.

Gizarte modernoan bizi-luzetasuna handiagoa denez, enplegu berriaren sorrerarako aukera sozioekonomikoak daude, jakintzaren zein ikerketaren arlo berriak garatzeko eta balio erantsi handiko eta talentuaren zein inbertsioaren erakarpenerako jarduera ekonomiko berritzaileak bultzatzeko. Alde horretatik, Bizkaiko Foru Aldundiko **Bizkaia Egiten Planean** lehenetsitako estrategien barruan, **NIC - Nagusi Intelligence Center** sortu da, eta zentro horrek zilarrezko ekonomiaren arloan jarduera-sektore berria garatzeko aukera bihurtuko du biztanleen zahartzapenaren erronka. Horrela, talentua eta berrikuntza sustatuko dira, adinekoen premiei eman beharreko erantzun moduan kalitateko enplegu jasangarria sortzen laguntzeko.

Zilarrezko ekonomia adinekoen premiei erantzuten dieten jarduera ekonomikoaren multzoa da, adinekoek zuzenean erositako ondasunak zein zerbitzuak, sektore publikoa eta lotutako zeharkako jarduera ekonomikoa kontuan hartuta.

Zilarrezko ekonomiaren aldeko apustua egitean, biztanleen zahartzapena Bizkaiko gizartea eta ekonomia garatzeko aukera on bihurtzen da, zahartzapenak eskaintzen dituen abaguneei onura ateratzen zaie-eta.

Zilarrezko Ekonomiarako 2022-2023ko Bizkaia Programak zilarrezko ekonomiaren sektorean prestakuntza, jakintza eta gaitasunen garapena ahalik eta maila handienera sustatzea du helburu, Bizkaia profesional prestatuak eduki ditzan biztanleen zahartzapenaren erronkak eta horrekin lotutako produktuen zein zerbitzuen eskaera handiagoak sorrarazten dituen premiei erantzuteko gai izan daitezten.

Ekimen berri honen bidez, Bizkaia Talentek zilarrezko ekonomian garapen-bidean dagoen sektoreak eskaintzen dituen aukerak suspertzea dauka helburu, adinekoen bizi-kalitatean eragina, eragin ekonomikoa eta eragin soziala sortzeko.

Kalitateko prestakuntza eskaintzeko orduan, funtsezkoa da tokiko instituzioek eta unibertsitateek elkarrekin lan egitea. Hori dela eta, unibertsitateek Bizkaian aliatu moduan duten zeregina suspertu beharra dago, eta, horretarako, harremanetarako epe luzeko esparru egonkorra sortu behar da, Bizkaiko garapenean eta etorkizuneko oparotasunean laguntzeko. Horretarako, lehenetsunak da Bizkaiko Foru Aldundiaren lan-ardatz nagusiak jorratzea, haietako bat zilarrezko ekonomia dela kontuan hartuta.

1. HELBURUA

Programak ondo baino hobeto prestatutako pertsonari eman nahi **die zilarrezko ekonomiaren sektorearekin** lotutako prestakuntza espezializatua egiteko aukera. Horretarako, horren kostuaren finantzaketa partziala emango die, sektorearen eraldaketa bultzatzeko, adinekoen premiei erantzuteko eta, horrela, honako hauxe sustatzeko:

- a) zilarrezko ekonomiaren inguruko produktu, zerbitzu eta teknologia berrien garapena eta ekintzailera.
- b) zilarrezko ekonomiaren inguruko datuen azterketa.

2. ONURADUNEN ESKAKIZUNAK

Honako eskakizun hauek betetzen dituzten pertsona fisikoek parte hartu ahal izango dute Zilarrezko Ekonomiarako 2022-2023ko Bizkaia Programa:

1. Zilarrezko ekonomiarekin lotutako jakintzetan sakondu nahi duten tituludun unibertsitarioak, betiere, honako eskakizun hauetakoren bat betetzen badute:
 - a) Bizkaian jaiotakoak izatea.
 - b) Auzotasun administratiboa Bizkaian edukitzea eta eskabideak aurkezteko epea ireki aurre-aurretik 12 hiletik gorako antzintasuna edukitzea. Dena dela, zenbaketa horren inguruko salbuespenak onartu ahal izango dira, ikasketengatik edo lanagatik izangaiak aldi batean Bizkaitik kanpo bizi behar izan badira.
 - c) Bizkaiko unibertsitateren batean ikasi izana.
 - d) Nahikoa izangairik egon ezean, salbuespenez kontuan hartu ahal izango dira aurreko idatz-zatiak (a, b edo c) betetzen ez dituzten eta Bizkaiko Lurralde Historikorako erroketara sustatzen duten elementu pertsonal edo profesionalak dituztela argi eta garbi justifikatzen duten izangaiak.
2. Eskabidea egitea eta onartuak izatea. 2022-2023ko ikasturtean unibertsitate batek Bizkaian zilarrezko ekonomiaren arloan emandako unibertsitate-masterreko ikasketak egiteko. Gutxienez irakastorduen %60 eman beharko dira aurrez aurre.

3. FINANTZAKETAREN HELBURU DIREN MASTERREN AZALPENA

1. Bizkaian emandako unibertsitate-masterrak.
2. Unibertsitate-masterreko tituluan, **60 ECTS** kreditu egin beharko dira.
3. Gutxienez, **irakastorduen %60 aurrez aurre** egin beharko dira, betiere, COVID-19aren ondorioz beharrezkoak diren salbuespenezko neurriak ezartzen ez badira.
4. Unibertsitate-masterra 2022-2023ko ikasturtean garatu beharko da.
5. Laguntza honen helburu den masterrean, behar besteko moduluak eta irakasgaiak eman beharko dira, zilarrezko ekonomiarekin lotutako arloko jakintza tekniko espezializatuak lortzeko.
6. Espezializazioko masterrera finantzaketa lortzeko, 14 ECTS kredituko master-amaierako lana (MAL) garatu beharko da.

7. Hautatu daitezkeen unibertsitate-masterretako irakas-programa zilarrezko ekonomiako espezializazioa sortzeko egon beharko da diseinatuta. Masterraren finantzaketa gauzatu ahal izateko, espezializaziorako prestakuntza eskaini beharko du hurrengo bi arloetakoren batean, eta bakoitzean zehaztutako eskakizunak bete beharko ditu:

a. Zilarrezko ekonomiaren sektorearekin lotutako prestakuntza espezializatua, ekintzailtza sustatzeko eta produktu, zerbitzu zein teknologia berriak garatzeko.

- Unibertsitate-masterrak enpresako eta ekintzailtzako proiektu berrien sorrera sustatu beharko du, baita lehendik dauden enpresetako negozio-lerro berriak, talentuaren sorrera eta zahartzapenaren balio-kateko produktuak zein zerbitzuak gauzatzeko ideien garapena ere, biztanleen zahartzapenaren erronkaren axutei eta premiei aurre egiteko.
- Unibertsitate-masterrak zenbait arlotako jakintzak eskaini beharko ditu; esate baterako, ekintzailtzan eta barruko ekintzailtzan produktu berriak eta negozio-lerro berriak garatzea, zilarrezko ekonomiaren inguruko jarduera ekonomikoa sortzeko. Aldi berean, masterra lagungarria izan beharko da zilarrezko ekonomiaren sektorean ideiak eta merkatu-hobiak zehazteko orduan.
- Masterrean, Bizkaiko erakunde batean murgiltzeko fasea garatu beharko da. Izangaia zilarrezko ekonomiaren sektoreko enpresa batean sartu beharko da, enpresak antzemandako premiaren

arabera ekintzailtzako edo barruko ekintzailtzako proiektua garatzeko asmoz.

- Espezializazioko masterrerako finantzaketa lortzeko, master-amaierako lana (MAL) garatu beharko da, eta Bizkaian garatzeko eta ezartzeko modukoa izan beharko da, Bizkaiak biztanleen zahartzapenaren arloan dituen premiei erantzuna emateko. Master-amaierako lana (MAL) Bizkaian edo ekintzailtzako proiektua Bizkaian garatu beharko da.

b. Zilarrezko ekonomiaren sektorearekin lotutako prestakuntza espezializatua, datuen azterketa bultzatzeko.

- Unibertsitate-masterrak datuen azterketarako jakintza teknikoak eskaini beharko ditu, biztanleen zahartzapenaren ondorioz sortutako premiei erantzuna emateko.
- Unibertsitate-masterrak jakintzak eskaini beharko ditu, zahartzapenaren erronkaren inguruko jakitatea eta erabakiak hobetzeko. Horrela, jarduerarako zein enplegurako sektore berria garatzeko aukera eskainiko da. Bertan, silver giza taldearen premiei erantzuteko asmoz biztanleen zahartzapenaren arloan dauden informazio-premien azterketari buruzko prestakuntza eman beharko da.

4. ZUZKIDURA EKONOMIKOA, LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ONURADUNEN KOPURUA

2022eko deialdirako zuzkidura ekonomikoa **124.200 €-koa** izango da guztira.

Gehienez ere **23** izangai onuradunen zilarrezko ekonomiako espezializazio-masterra finantzatuko da zati batez. Masterra finantzatzeko orduan, onuradunek **5.400na €**

jasoko dituzte, eta zenbateko hori ez da inolaz ere matrikularen kostua baino handiagoa izango.

5. DEIALDIKO EPEAK

Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 3an hasi eta hurrengo inguruabarretakoren bat gertatu arte iraungo du:

- a. Erabilgarri dagoen aurrekontua agortzea.
- b. Eskabideen kopurua edota eskuragarri dauden beste datu batzuk kontuan hartuta, erabilgarri dagoen aurrekontua agortu egingo dela ulertzea.
- c. 2022ko azaroaren 15a iristea.

Azken ebazpena: 2022ko abenduaren 2a.

Bizkaia Talentek fase bakoitzeko epeak luzatu ahal izango ditu programaren premien arabera.

6. ESKABIDEA EGITEKO PROZESUA

6.1. Eskabideari buruzko informazio orokorra

Deialdi honekin lotutako informazioa hemenxe egongo da eskuragarri: <http://www.bizkaiatalent.eus>

Zilarrezko Ekonomiarako 2022-2023ko Ikasturteko Bizkaia Laguntza Programan parte hartu nahi duten izangai hautagarriek laguntza eskatu ahal izango dute, honako hauexen bitartez eskabidea behar bezala aurkeztu ahal izateko: posta elektronikoz (bizkaiaeconomiaplateada@bizkaiatalent.eus), telefonoz (+34 94 479 54 28) edo aurrez aurre, Bizkaia Talenteko bulegoan aurretiazko hitzordua eskatu ondoren.

2022ko Azaroaren 15a eskabidea bidaltzeko azken eguna izango da, eta Zilarrezko Ekonomiarako 2022-2023ko Bizkaia Programara aurkezteko beharrezkoak diren agiriak atxiki beharko dira bertan.

Bizkaia Talentek beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu ebaluazio-prozesuko edozein unetan, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu eta balioetsi ahal izateko.

Eskatzaileek prozesu osoan aurkeztutako informazioaren edota agirien egiazkotasunaren eta benetakotasunaren gaineko erantzukizuna izango dute.

6.2. Eskabideen aurkezpena

Eskabidea eta eskatutako agiriak e-postaz baino ez dira aurkeztuko posta elektronikoko helbide honetan: bizkaiaeconomiaplateada@bizkaialent.eus

7. ESKATUTAKO AGIRIAK ETA LAGUNTZAREN IZAPIDEAK

Lehenengo eta behin, zeure izangaitza gauzatzeko, eskatutako agiriak bidali beharko dituzu posta elektronikoaren bidez.

Honako hauxe izan beharko da mezu elektronikoaren gaia: **Zilarrezko Ekonomiarako Bizkaia Programa: eskatzailearen izena eta 2 abizenak**. Eskabideko mezu elektronikoan, honako agiri hauek atxiki beharko dira:

Derrigorrezko agiriak:

- a) NANaren edo pasaportearen fotokopia.
- b) Bankuko titularitatearen ziurtagiria. Honako hauxe agertu beharko da agirian: titularraren izena, kontu-zenbakia eta banku-erakundeko bulegoaren zigilua.
- c) Norberaren Datuak Babesteko Klausula (I. ERANSKINA): izangaiaren izena eta bi abizenak zein diren adierazten duen ale sinatua.
- d) 2022-2023ko ikasturtean unibertsitate batek Bizkaian zilarrezko ekonomiaren arloan emandako unibertsitate-masterreko ikasketak egiteko izangaia onartua izan dela egiaztatzen duen onarpen-ziurtagiria.
- e) Curriculum vitae.

Curriculum vitaearen inguruko informazio-proposamena (gehienez ere 2 orrialde PDF formatuan):

- I. Izangaiaren aurkezpen laburra, masterra egiteko dituen helburuak azaltzeko.
- II. Norberaren datuak. Izen osoa, telefonoa eta posta elektronikoaren kontua. Jaioteguna. Jaioterria eta nazionalitatea. NANA.
- III. Prestakuntza akademikoa, hala badagokio, masterrak eta doktoretzak kontuan hartuta (datak, zentroa eta zer lekutan egin diren).
- IV. Esperientzia profesionala: datak, kargua, lanpostu bakoitzeko eginkizunak, enpresa kontratugilearen izena eta lantokia.
- V. Hizkuntzak: maila eta titulu ofizialak.
- VI. Prestakuntza osagarria.

VII. Merezimenduak, sariak, patenteak, trebetasunak, gaitasunak, garrantzi bereziko lorpen profesionalak, ekintzaitzako esperientzia, garapen teknologikoa eta garrantzitsua den beste edozein informazio gehigarri.

f) Memoria.

Memoriaren inguruko informazio-proposamena (gehienez ere 4 orrialde PDF formatuan):

- I. Zilarrezko ekonomiako espezializazio-masterra egiteko arrazoiak.
- II. Lan-ibilbidea zilarrezko ekonomiaren arloan garatzeko interes pertsonala eta profesionala. Bizkaiko biztanleen zahartzapenaren ondorioz sortutako premien konponbidearekin lotutako kezka.
- III. Bizkaiko zilarrezko ekonomiaren ekosistema ezagutza.
- IV. Bizkaian dituzten sustraiei buruzko azalpen laburra, oinarri hauen 2.1.d. puntua kontuan hartuta.
- V. Hala badagokio, Bizkaiko zilarrezko ekonomiari buruzko master-amaierako lanaren (MAL) azalpena edo gutxi gorabeherako ideia.
- VI. Hala badagokio, honako arlo hauetako aurretiazko esperientzia: barruko ekintzaitzako, enpresetako eta ekintzaitzako proiektuen sorrera, ideia arrakastatsuen garapena, produktu zein zerbitzu berritzaileen garapena edota garapen teknologikoa.
- VII. Hala badagokio, ekiteko trebetasunak edo enpresetan laneratzeko gaitasunak (enpresako zer arlotan, garapen teknologikoa, ideia eta merkatu berriak antzemateko proaktibotasuna, berrikuntza, ikerketa aplikatua eta barruko ekintzaitza).

g) Honako agiri hauetako baten bidez egiaztatuko den unibertsitate-titulazioa:

- I. Unibertsitateko graduko tituluaren edo lizentziaturaren kopia.
- II. Titulurik eduki ezean, titulu-eskabidearen ordezkagiria eta titulua egiteko eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria.

Borondatezko agiriak:

a) Izangaitzari balioa eman ahal dioten beste titulazio batzuen kopia (egindako masterrak, hizkuntzak edota beste prestakuntza batzuk).

b) Emaizta islatzen duen espediente akademikoaren kopia, kasuan kasuko titulazioaren osoko proba gainditu dela eta hori lortzeko eskubideak ordaindu direla adierazteko. Agiri hau aurkeztea borondatezkoa bada ere, **izangaitza guztietan ebaluatuko da**, eta puntuazio osoaren %10 emango zaio. Agiri hori eskabidean aurkeztu ezean, atal honetako puntuazioa 0 puntukoa izango da.

c) Unibertsitateko titulazioa lortzeko aukeratutako unibertsitateak egindako agiriaren edo ziurtagiriaren kopia, promozioko sailkapen orokorrean zer postu erdietsi den egiaztatzeko.

d) Euskara-mailaren egiaztigiriaren kopia.

Atzerrian edo publikoak ez diren Espainiako zentroetan lortutako tituluekin batera, agintaritzak eskudunak egindako kasuan kasuko homologazioa aurkeztu beharko da.

Eskatzaileek eskatutako datu eta agiri guztiak emateko erantzukizuna izango dute.

Eskatzaileek sartutako datuen eta eskatutako agirien nahiz haien egiazkotasunaren gaineko erantzukizuna izango dute, baita datu garrantzitsuak ez aipatzeagatikoa ere.

8. HAUTATZEKO PROZESUA

8.1. HAUTATZEKO SISTEMA ETA PROZESUA

Laguntzak esleitzeko hautaketa-sistema **norgehiagoka** izango da, eta, bertan, Bizkaia Talentek horretarako egindako balioespena zein proposamena hartuko dira kontuan.

Zehaztutako eskakizunak bete egiten direla egiaztatu ondoren, Bizkaia Talentek eskabide bakoitzean aurkeztutako agiriak ebaluatuko ditu.

Agiriren bat aurkeztu ezean, Bizkaia Talent izangaiarekin jarri ahal izango da harremanetan, deialdiko epearen eta bertako langileen prestasunaren arabera hori egiterik badago.

Akatsen bat ikusten badute, izangaiek kasuan kasuko jakinarazpena bidali ahal izango dute hona: bizkaiaekonomiaplateada@bizkaiaalent.eus.

Bizkaia Talentek elkarriketa egingo die izangaiei, haien prestakuntzari, lan-ibilbideari eta, izangaiaren profilaren arabera, beste jakintza edo trebetasun batzuei buruzko informazioa osatzeko (ekintzailtzako proiektua, barruko ekintzailtza, datuen azterketari eta adimen artifizialari buruzko jakintza teknikoak...). Horrez gain, arloko adituen aholkularitza ere arakatu ahal izango du.

Izangaiak hautatzeko prozesua gardenagoa izan dadin, honako haztapan hau ezarriko da:

- Espediente akademikoa: %10
- Esperientzia profesionala: %50
- Banakako elkarrizketa: %40

Ondorio horietarako, honako honexen arabera aztertuko da espediente akademikoa: irakasgai bakoitzean erdietsitako emaitzak eta, harik eta eskatutako titulazioa lortu arte, irakasgai bakoitza gainditzeko erabilitako deialdien kopurua.

Aurrez aurreko elkarrizketa noiz eta non egingo den (on line formatuan deitu ahal izango da) egin aurretiko bi egun lehenago jakinaraziko da gutxienez.

8.2. HAUTATZEKO PROZESUKO FASEAK

8.2.1. **Hautagarritasunaren irizpideak egiaztatzeko fasea:** lehenengo fasean, Bizkaia Talentek deialdiko eskakizun formalak betetzen dituzten eta laguntza jaso lezaketen izangaiak hautatuko ditu, 2. puntuaren (ONURADUNEN ESKAKIZUNAK) eta 3. puntuaren arabera (FINANTZAKETAREN HELBURU DIREN MASTERREN AZALPENA).

8.2.2. **Ebaluatzeko prozesua:** hautagarritasunaren fasea amaitutakoan, izangaiak **ebaluatzeko** prozesua hasiko da, eta merezimenduaren balioespena zein gaitasuna izango ditu irispide gidari. Eskabidea balioesteko orduan, **jasotako agiriak** hartuko dira kontuan, baita izangaiari egindako **elkarrizketan** erkatu den informazioa ere. Izangaitzak eskabideen erregistro-hurrenkeraren arabera ebaluatuko dira.

Banakako elkarrizketen fasean, Bizkaia Talentek zilarrezko ekonomiaren arloan esperientzia nabaria duten zenbait sektore eta diziplinako adituek parte hartzeko eskatu ahal izango du, balioespena egin dezaten.

9. ESLEITZEKO PROZEDURA

Laguntzak:

- Zehaztutako epean aurkeztutako izangaien merezimenduen lehiaketaren bidez. Fondoak eskabideen erregistro-hurrenkeraren arabera banatuko dira, betiere, deialdian adierazitako eskakizunak betetzen badituzte, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontua

agortu arte edo deialdiaren indarraldia amaitu arte edo aurreikusi baino lehenago itxi arte.

- Ebaluazio-prozesuan gutxienez 50 puntu lortu dituzten eskabideei emango zaizkie, esleitu beharreko laguntza guztien muga zuzkidura ekonomikoaren idatz-zatian zehaztutako 124.200 euroko zenbatekoa izango dela kontuan hartuta.

- Hala badagokio, 2.1.d. puntuan azaldutako izangaientzako fondoak 2022ko azken lauhilekoan banatuko dira, eta ebazteko gehieneko epea 2022ko abenduaren 2a izango da.

10. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Eskabidea programara aurkeztuz gero, deialdiko oinarri hauetan xedatutakoa onartu beharko da.

Honako haxe egin beharko dute onuradunek:

- a) Bekaren esleipena jakinarazi osteko bost eguneko epean beka onartzeko agiria sinatzea, betiere, salbuespenezko inguruabarrengatik beste gauza bat hitzartzen ez bada.
- b) Masterra egiten duen unibertsitateko jardunbide-arauei men egitea.
- c) Bizkaia Talenti programaren helburu onaren lorpenean eragina duen edozein gorabeheraren berri ematea.

11. ONURADUN-IZAERAREN GALERA

11.1. Programako onuradun-izaera amaitu egingo da, programa bera bukatu egiten delako eta, horrez gain, onuradunak berak berariaz uko egiten diolako. Era berean, izangai-izaera ere galdu ahal izango da, betebeharrak ez betetzeagatik eta masterreko titulua ez lortzeagatik.

11.2. Oinarri hauek betetzen ez badira, edozein unetan gertatzen dela ere, zuzenean ezeztatuko da programa, eta, halakoetan, onuradunak lortutako laguntza itzuli beharko du. Onuradunak aipatutako konpromisoak (edo programako baldintzetan adierazitako beste edozein) betetzen ez baditu, programak behar besteko eskubidea izango du, egokitzen jotzen duen bezala jokatzeko, eta eskura dituen legezko bideak erabili ahal izango ditu horretarako.

Ukoagatik edo, oro har, ez-betearazpenagatik programako onuradun-izaera galduz gero, onuradunek sortu ez diren eskubide ekonomiko guztiak galdu ahal izango dituzte, eta, era berean, BFAk sustatutako edozein programatan hautatuak izateko etorkizuneko prozesuetatik kanpo ere geratu ahal izango dira (behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik; esate baterako, istripua, gaixotasuna...).

I. ERANSKINA

NORBERAREN DATUEN BABESERAKO KLAUSULA

Datuen Babesari buruzko 679/2016 Araudi Orokorrean eta Norberaren Datuen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan zehaztutako informazio-betebeharra betetzeko asmoz, **jakinarazi egiten dizugu honako honexen erantzukizunpean tratatuko direla zure datu pertsonalak:**

Tratamenduaren arduraduna: Bizkaia Talent (Eraberrikuntzan eta Ezagutzan Adituak diren Pertsonen Mugikortasuna Sustatzeko Elkartea)

IFK: G95326583

Helbide soziala: Bizkaiko Parke Teknologikoa, 804. eraikina, 300. modulua, Laga Bidea, 48160 Derio.

Harremanetarako e-posta: bizkaiaeconomiaplatea@bizkaiatalent.eus

Tratamenduaren helburuak: prozesu honetan www.bizkaiatalent.eus webgunearen edo e-postaren bidez ematen dizkiguzun datuak honako honexetarako tratatuko dira:

- Zure profila egokia den ebaluatzea, Zilarrezko Ekonomiarako Bizkaia Programako laguntza eskuratzeko.
- Zure izangaitzaren egoerari buruzko informazioa bidaltzea.
- **Bizkaia Talentek** garatzen dituen jardueri eta programei buruzko jakinarazpen elektronikoak bidaltzea.

Oinarri juridikoa

- 6.1.b. artikulua. Kontratuaren betearazpena.

Zu alderdi interesdun moduan zaituen kontratua betearazteko orduan beharrezkoak direlako tratatzen dira.

- 6.1.a. artikulua. Interesdunaren baimena.

Zilarrezko Ekonomiarako Bizkaia Programara izangai moduan aurkeztean eta Programarako zehaztutako eta **Bizkaia Talenten** webgunean argitaratutako oinarriak onartzean zuk ematen duzun **berriazko baimenaren** arabera.

Datuak gordetzea: zure datuak **Bizkaia Talenten** datu-baseetan sartu eta biltegitatu egingo dira, eta jasotzen direnetik 5 urteko epean gordeko dira gutxienez.

Zure eskubideak: zeure datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta haien tratamendua mugatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzu tratamenduaren arduradunaren aurrean. Horretarako, mezu elektronikoa bidali beharko duzu rgpd@bizkaialent.eus posta elektronikora, zer eskubide erabili nahi duzun adierazi beharko duzu bertan eta zeure NANaren edo agiri baliokidearen kopia atxiki beharko duzu.

Gure Pribatutasun Politikari buruzko informazio gehiago nahiz izanez gero, sartu hemen: <https://www.bizkaialent.eus/politica-de-privacidad/>

Bizkaia Talentek antolatutako ekitaldiren batean izena ematen baduzu, onartu egiten duzu Bizkaia Talentek edo Bizkaiko Foru Aldundiak bertan hartzen dizkizuten irudia eta ahotza erabiltzea ikus-entzunezkoen sorreran, euren sare sozialetan edo komunikabideetan zabaltzeko eta sustapen zein merkataritza arloko helburuak betetzeko. Ados ez bazaude, mezu elektronikoa idatzi rgpd@bizkaialent.eus eta bizkaiaeconomiaplateada@bizkaialent.eus helbideetara.

Informazio gehiago lortzeko, gure pribatutasun-politika bisitatu besterik ez duzu.